DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Gune Publikoen Batzordea. Obrak eta Hiri Zerbitzuak
Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

# 32. AKTA

## Gune Publikoen Batzordea. Obrak eta Hiri Zerbitzuak

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2026-04-20

**Ordua:** 12:47 h

**Tokia:** Loretope aretoa

**Batzordeburua**: Juan Marrero Vizcaino

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak**:

Idoia Gracia Monge

Nekane Arzallus Iturriza

Olatz Yarza Garagorri

Martin Ibabe Eceiza *(13:19an bilkuratik joan da)*

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Jabier Vitoria Roma

Garbiñe Alkiza López de Samaniego

Itziar Iturri Arrazola

Tomas Pascua Martin

Victor Lasa Briz *(lehenengo puntua bozkatu ondoren bilerara bertaratu da; 13:12an atera da eta 13:17an bertaratu da, berriz, bilerara)*

**Beste zinegotzi batzuk**:

Iñigo Garcia Villanueva *(Gai zerrendatik kanpoko gaia aztertu ondoren bilerara bertaratu da eta 14:56an bilkuratik atera da)*

Kerman Orbegozo Uribe *(12:53an bileratik joan da)*

Arantza Gonzalez Garcia *(13:32an bertaratu da eta 15:08an bilkuratik joan da)*

Ricardo Burutaran Ferré *(13:37an bertaratu da eta 13:53an bilkuratik joan da)*

# ACTA N.º 32

## Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 20-04-2026

**Hora:** 12:47 h

**Lugar:** Sala Loretope

**Preside:** Juan Marrero Vizcaíno

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas**:

Idoia Gracia Monge

Nekane Arzallus Iturriza

Olatz Yarza Garagorri

Martín Ibabe Eceiza *(a las 13:19 h se retira de la sesión )*

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Jabier Vitoria Roma

Garbiñe Alkiza López de Samaniego

Itziar Iturri Arrazola

Tomás Pascua Martín

Víctor Lasa Briz *(se incorpora a la sesión tras la votación del asunto n.º 1; sale a las 13:12 h y se reincorpora de nuevo a la sesión a las 13:17 h)*

**Otros concejales y concejalas**:

Iñigo García Villanueva *(se incorpora a la sesión tras el tratamiento del asunto fuera del orden del día y se retira de la sesión a las 14:56 h)*

Kerman Orbegozo Uribe *(se retira de la sesión a las 12:53 h)*

Arantza González García *(se incorpora a la sesión a las 13:32 h y la abandona a las 15:08 h)*

Ricardo Burutaran Ferré *(se incorpora a la sesión a las 13:37 h y la abandona a las 13:53 h)*

**Idazkaria:** Ana Perez Galarraga, Idazkari Nagusiak eskuordeturik.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, batzordeko kideei gai-zerrendatik kanpoko 1. gaia aztertzearen premiazko izaera aurkeztu zaie.

Batzordeburuak hitz egin du aztertu beharreko gaia premiazkoa dela azaltzeko.

Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Bozketa egin eta premiaz aztertu beharra aho batez onartu egin da.

**1. GZK.- Donostiako hondartzen erabilera eta aprobetxamenduaren ordenantzaren bigarren aldaketaren hasierako onarpenaren berri ematea.**

Batzordea jakinaren gainean geratu da.

*(Iñigo Garcia jauna bertaratu da bilkurara)*

* * * *

Jarraian, GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

**1.- 2026ko martxoaren 16an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 31. akta, 2026ko martxoaren 16an egindako bilerari dagokiona.

*(Victor Lasa jauna bertaratu da bilkurara)*

* * * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, batzordeburuak gaien ordena aldatzea erabaki du eta ondorioz, jarraian, 27. gaia eta 34.2. gaia *(Bozeramaileen Batzordeak bidalitako bigarren ekimena)* aztertu dira.

**Secretaria:** Ana Pérez Galarraga, por delegación de la Secretaria General.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a someter a la consideración de los y las miembros de la comisión el carácter urgente del tratamiento del asunto Fuera del Orden del Día n.º 1.

El presidente interviene para exponer el motivo de la urgencia del asunto a tratar.

Todo ello en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Sometida a votación, se aprueba por unanimidad la urgencia del tratamiento del asunto.

**FOD n.º 1.- Dar cuenta de la aprobación inicial de la segunda modificación de la ordenanza de uso y aprovechamiento de las playas de San Sebastián.**

La comisión se da por enterada.

*(El Sr. García Villanueva se incorpora a la sesión)*

* * * *

Acto seguido, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 16 de marzo de 2026**

Se aprueba por unanimidad el acta número 31, correspondiente a la sesión celebrada el día 16 de marzo de 2026.

*(El Sr. Lasa Briz se incorpora a la sesión)*

* * * *

Con la conformidad de todos los y las presentes, el presidente decide alterar el orden de tratamiento de los asuntos. Así, a continuación, se tratan los asuntos n.º 27 y n.º 34.2 *(segunda de las iniciativas remitidas por la Junta de Portavoces)*.

* * * *

**Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, gure hiriko telefono-kabinak kentzeari buruzkoa.**

Tomas Pascua jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Talde Popularreko zinegotzi Tomas Pascua Martinek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau egiten dio Jon Insausti Masterrena alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak), hiriko telefono-kabinak kentzeari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostian oraindik ere badira telefono-kabina batzuk hiri-paisaiaren parte gisa. Kabina horiek ez dira erabiltzen, horietako asko zerbitzuz kanpo daude, eta gehientsuenak bandalizatuta eta abandonatuta daude.

Espainiako telefono-kabinek 2022ko urtarrilaren 1ean utzi zioten telekomunikazio-zerbitzu unibertsalaren barruan nahitaezkoak izateari. Araudi berriak, Telekomunikazioei buruzko 11/2022 Lege Orokorraren babespean, kendu egin zuen zerbitzu publiko hori mantentzeko beharra, jadanik erabiltzen ez zela eta.

Ildo horretan, udal-talde popularraren interpelazio baten ondorioz, 2024ko otsailaren 12ko Gune Publikoen Batzordean, udal-gobernuak konpromisoa hartu zuen Telefónicari kabinak lehenbailehen kentzeko eskatzeko, baina oraindik ikusten dira hiriko hiri-paisaian.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik daude oraindik telefono-kabina batzuk gure hirian?
2. Udal-gobernuak ba al daki zenbat kabina geratzen diren oraindik hirian? Hala bada, zenbat dira?
3. Udal-gobernuak eskatu al dio Telefónicari horiek kentzeko?
4. Hala bada, noiz?
5. Hala ez bada, zergatik?

* * * *

**Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la retirada de las cabinas telefónicas de nuestra ciudad.**

El Sr. Pascua Martín da por leída la siguiente interpelación:

"Tomás Pascua Martín, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Maisterrena, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la retirada de las cabinas telefónicas de nuestra ciudad.

JUSTIFICACIÓN

A día de hoy todavía podemos observar en San Sebastián como parte del paisaje urbano algunas cabinas telefónicas, elementos en desuso, muchas de ellas fuera de servicio y la mayoría de ellas vandalizadas y abandonadas.

Las cabinas telefónicas en España dejaron de ser obligatorias dentro del servicio universal de telecomunicaciones a partir del 1 de enero de 2022. La nueva normativa, amparada en la Ley 11/2022, General de Telecomunicaciones, eliminó la necesidad de mantener este servicio público debido a su desuso.

En este sentido, a raíz de una interpelación del Grupo Municipal Popular, en la Comisión de Espacio Público del 12 de febrero del 2024, el Gobierno Municipal se comprometió a requerir a Telefónica para que retirase las cabinas cuanto antes, si bien aun pueden encontrarse en el paisaje urbano de la ciudad.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que aún quedan cabinas telefónicas repartidas por nuestra ciudad?
2. ¿Sabe el Gobierno Municipal cuantas cabinas quedan aun en la ciudad? En caso afirmativo, ¿cuántas son?
3. ¿Ha requerido el Gobierno Municipal a Telefónica para que proceda a su retirada?
4. En caso afirmativo, ¿cuándo?
5. En caso negativo, ¿por qué motivo?

Donostia, 2026ko apirilaren 8a

Tomas Pascua Martin
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia"

Kerman Orbegozo eta Tomas Pascua jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(12:53an Kerman Orbegozo jauna bilkuratik atera da)*

**Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, Sarriegi plazako segurtasunik ezaren eta bizikidetzaren narriaduraren egoerari buruzkoa.**

**(GALDERA BEZALA BIRKALIFIKATUA)**

Tomas Pascua jaunak ekimen hau *(galdera bezala birkalifikatutako interpelazioa)* irakurritzat eman du:

"Talde Popularreko zinegotzi Vanesa Vélez De Pablosek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti Martiarena alkateari, Sarriegi plazako segurtasunik ezaren eta bizikidetzaren narriaduraren egoerari buruzkoa, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Azken asteotan, Sarriegi plazako bizilagunek eta merkatariek bidalitako hainbat idazki jaso ditugu, Parte Zaharreko plaza horretan behin eta berriz gertatzen ari den egoerak sortzen dien kezka handiaren berri emateko.ç

Idazki horiek Udal honetako Erregistro Orokorrean ere aurkeztu dira.

Azaldu dutenez, espazio horretan magrebtar etniako pertsona-taldeak biltzen dira maiz, bai plazaren erdialdean, bai atarietarako sarbideetan eta saltokien erakusleihoen behealdeetan, eta horrek segurtasunik ezaren eta bizikidetzaren narriaduraren sentsazio gero eta handiagoa sortzen du.

Bizilagunek adierazi dutenez, askotan talde horiek zeharkatu behar izaten dituzte beren etxebizitzetara sartu ahal izateko, larderiazko begiradak edo iruzkin deserosoak jasan behar izaten dituzte, eta horrek beldurra eragiten du, batez ere iluntze eta gauetan.

Bestalde, merkatariek adierazi dute pertsona horiek maiz jartzen direla erakusleihoen aurrean edo

En San Sebastián, a 8 de abril de 2026

Tomás Pascua Martín
Concejal del Grupo Municipal Popular"

Intervienen en este punto los Sres. Orbegozo Uribe, y Pascua Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 12:53 h el Sr. Orbegozo Uribe abandona la sesión )*

**Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la situación de inseguridad y deterioro de la convivencia en la Plaza Sarriegi.**

**(RECALIFICADA COMO PREGUNTA)**

El Sr. Pascua Martín da por leída la siguiente iniciativa *(interpelación recalificada como pregunta)*:

"Vanesa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Maisterrena, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre la situación de inseguridad y deterioro de la convivencia en la Plaza Sarriegi.

JUSTIFICACIÓN

En las últimas semanas hemos recibido diversos escritos remitidos tanto por vecinos residentes como por comerciantes de la Plaza Sarriegi, en los que trasladan su profunda preocupación por la situación que se viene produciendo de manera reiterada en dicha plaza de la Parte Vieja.

Dichos escritos, también han sido presentados en el Registro General de este Ayuntamiento.

Según relatan, en este espacio se concentran de forma habitual grupos de personas de etnia magrebí que ocupan zonas centrales de la plaza, accesos a portales y bases de escaparates de comercios, generando una sensación creciente de inseguridad y deterioro de la convivencia.

Los vecinos señalan que, en numerosas ocasiones, deben atravesar estos grupos para poder acceder a sus viviendas, soportando miradas intimidatorias o comentarios incómodos, lo que provoca miedo especialmente en horarios vespertinos y nocturnos.

Por su parte, los comerciantes indican que estas personas se sitúan frecuentemente frente a los

establezimenduen sarreretan, eta horrek erakusleihoetako generoa ikusaraztea zailtzen duela; era berean, bezero potentzialak, beldurragatik edo deserosotasunagatik, ez dira saltokietan sartzen, eta horrek zuzeneko eragina du salmentetan.

escaparates o en las entradas de los establecimientos, dificultando la visibilidad del género expuesto y provocando que clientes potenciales eviten entrar en los comercios por temor o incomodidad, lo que está repercutiendo directamente en las ventas.

Horrez gain, auzotarrek eta merkatariek adierazi dute, Ertzaintzako eta Udaltzaingoko agenteek egindako jarduketen arabera, inguru horretan droga-salmentarekin lotutako gertakariak detektatu direla, eta horrek nabarmen larriagotzen du dagoen kezka.

Asimismo, tanto vecinos como comerciantes manifiestan que, según actuaciones realizadas por agentes de la Ertzaintza y de la Guardia Municipal, en ese entorno se han detectado episodios relacionados con la venta de drogas, circunstancia que agrava notablemente la preocupación existente.

Era berean, agerian geratzen da poliziaren presentzia areagotzen denean, egoerak hobera egiten duela berehala, eta arazo horiek sortzen dituztenak eremutik alde egiten dutela; horrek argi uzten du zaintza iraunkorrago batek disuasio-efektua sortzen duela.

También se pone de manifiesto que cuando aumenta la presencia policial la situación mejora de forma inmediata, abandonando la zona quienes generan estos problemas, lo que evidencia el efecto disuasorio de una vigilancia más constante.

Parte Zaharrean, hiritarren joan-etorri turistiko handiko gunea da Sarriegi plaza eta, beraz, bizikidetzaren eta segurtasunaren narriadurak, bertan bizi edo lan egiten dutenei ez ezik, hiriaren irudi orokorrari ere eragiten dio.

La Plaza Sarriegi es un espacio céntrico de gran tránsito ciudadano y turístico dentro de la Parte Vieja, por lo que el deterioro de la convivencia y de la seguridad afecta no solo a quienes viven o trabajan allí, sino también a la imagen general de la ciudad.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal Gobernuak ba al du Sarriegi plazako bizilagunek eta merkatariek segurtasun ezari, atarietarako sarbideen okupazioari eta droga-salmentari buruz salatutako gertakarien berri?

2. Azken hilabeteetan, Udaltzaingoak zer jarduketa zehatz egin ditu Sarriegi plazan gertakari horiekin lotuta?

3. Udalak ba al du polizia-daturik edo txostenik plaza horretan egindako droga-interbentzioei, -identifikazioei edo -konfiskazioei buruz?

4. Aztertu al da Udaltzaingoak Sarriegi plazan duen presentzia modu egonkorrean indartzeko aukera, bereziki kontzentrazio horiek gertatzen diren ordu-tarteetan?

5. Udal Gobernuak aurreikusten al du berariazko prebentzio-gailurik martxan jartzea saltokietako erakusleihoetako eta atarietako sarbideak okupatu ez daitezen?

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Tiene conocimiento el Gobierno municipal de las situaciones denunciadas por vecinos y comerciantes de la Plaza Sarriegi relativas a inseguridad, ocupación de accesos a portales y presencia de actividades relacionadas con la venta de droga?

2. ¿Qué actuaciones concretas ha realizado la Guardia Municipal en la Plaza Sarriegi durante los últimos meses en relación con estos hechos?

3. ¿Dispone el Ayuntamiento de datos o informes policiales sobre intervenciones, identificaciones o incautaciones de droga realizadas en esta plaza?

4. ¿Se ha valorado reforzar de manera estable la presencia de la Guardia Municipal en la Plaza Sarriegi, especialmente en las franjas horarias donde se producen estas concentraciones?

5. ¿Prevé el Gobierno municipal poner en marcha algún dispositivo preventivo específico para evitar la ocupación de accesos a portales y escaparates de comercios?

6. Jarduketak koordinatu al dira edo koordinatuko al dira Ertzaintzarekin, Parte Zaharreko eremu horretan hautemandako segurtasun-arazoei modu bateratuan heltzeko?

7. Udalak zer neurri hartzeko asmoa du Sarriegi plazan segurtasuna, bizilagunen arteko bizikidetza eta merkataritza-jardueraren garapen normala bermatzeko?

8. Badago jarraipen-plan espezifikorik Parte Zaharreko eremu zehatz horretarako, behin eta berriz gertatzen ari diren gorabeheren aurrean?

Donostia, 2026ko apirilaren 6a

Vanesa Vélez de Pablos
Udaleko PP taldeko zinegotzia".

Martin Ibabe eta Tomas Pascua jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

* * * *

Jarraian, deialdian gaiak aztertzeko aurreikusi zen hurrenkerari ekin diote berriro.

* * * *

**<u>2.- Arau-proposamen ekimena, PP taldeak aurkeztua, bide publikoan gizalegea, erabilera eta garbitasuna eta hiri-paisaiaren babesari buruzko ordenantza aldatzeko dena.</u>**

Batzordeko idazkariak, batzordeburuak ekimenaren trataerari buruz egindako galderari erantzunez, esku-hartzeen ordena azaldu du: lehenik, proposamena egin duen taldeak hartuko du hitza; ondoren, talde bakoitzak, txikienetik handienera, esku hartzeko txanda bat izango du; eta, azkenik, proposamena egin duen taldeak beste txanda bat izango du.

Pascua Martín jaunak, proposamena egin duen taldeko kidea den aldetik, arau-proposameneko ekimena azaldu du.

Iñigo Garcia eta Tomas Pascua jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

6. ¿Se han coordinado o se prevén coordinar actuaciones con la Ertzaintza para abordar de manera conjunta los problemas de seguridad detectados en esta zona de la Parte Vieja?

7. ¿Qué medidas piensa adoptar el Ayuntamiento para garantizar la seguridad, la convivencia vecinal y el normal desarrollo de la actividad comercial en la Plaza Sarriegi?

8. ¿Existe un plan específico de seguimiento para esta zona concreta de la Parte Vieja ante los incidentes que vienen produciéndose de forma reiterada?

En San Sebastián, a 06 de abril de 2026

Vanesa Vélez de Pablos
Concejala del Grupo Municipal PP".

Intervienen en este punto los Sres. Ibabe Eceiza y Pascua Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

* * * *

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

* * * *

**<u>2.- Iniciativa de Proposición normativa, presentada por el Grupo PP, de modificación de la Ordenanza sobre el civismo, el uso y la limpieza en la vía pública y la protección del paisaje urbano.</u>**

La secretaria de la comisión, respondiendo a la pregunta del presidente sobre el tratamiento de esta iniciativa, explica el orden de intervenciones: primeramente tomará la palabra el grupo proponente; a continuación cada grupo, de menor a mayor, dispondrá de un turno de intervención; y, por último, dispondrá de un nuevo turno el grupo proponente.

El Sr. Pascua Martín, como miembro del grupo proponente, expone la iniciativa de proposición normativa.

Intervienen en este punto los Sres. García Villanueva y Pascua Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al

Diario de Sesiones.

2. gaia bozkatu da eta kontrato irizpena jaso du honako boto hauekin:

- Aldeko botoak: 1 (PP)
- Aurkako botoak: 6 (3, EH BILDU; 2, PSE-EE; 1, ELKARREKIN DONOSTIA)
- Abstentzioak:4 (EAJ-PNV)

Sometido a votación, el asunto n.º 2, es dictaminado desfavorablemente con los siguientes votos

- Votos a favor: 1 (PP)
- Votos en contra: 6 (3, EH BILDU; 2, PSE-EE; 1, ELKARREKIN DONOSTIA)
- Abstenciones: 4 (EAJ-PNV)

**3.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, M17ko grebaren ondoren Donostiako kaleetan egindako pintaketa aldarrikatzaileei buruzkoa.**

Pascua Martin jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari, 17Mko greban egindako errebindikazio-pintadei buruzkoa, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Ia hilabete igaro da sindikatu nazionalistek greba orokorrerako deialdia egin zutenetik, LGS propioa eskatzeko. Egun horretan, berriz ere, greba hori egin nahi ez zuten pertsonak hertsatzeko eszenak bizi izan ziren: piketeak egon ziren, bai eta txikitzeak ere hainbat establezimendutan eta Donostiako kaleetan.

Goizeko eta arratsaldeko manifestazioetan, hiriko erdigunean, erakusleihoak eta fatxadak margotu zituzten, zigorgabetasun osoz.

Hori larria da, baina are larriagoa da, ia hilabete geroago pintada horiek garbitu gabe jarraitzea.

Horregatik guztiagatik, hau da behean sinatzen duenak egiten duen INTERPELAZIOA

1. Zer dela-eta ez da arduratu Udala 17M eguneko manifestazioetan egindako pintada guztiak garbitzeaz?

2. Udal Gobernuak ba al du hori egiteko asmorik?

3. Hala bada, noiz?

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre las pintadas reivindicativas en las calles de San Sebastián tras la huelga del 17M.**

El Sr. Pascua Martín da por leída la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas, Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre las pintadas reivindicativas en las calles de San Sebastián tras la huelga del 17M.

JUSTIFICACIÓN

Ha pasado casi un mes desde que los sindicatos nacionalistas convocaron una huelga general para exigir un SMI propio. Ese día se vivieron, una vez más, escenas de coacción hacia las personas que no querían hacer esa huelga, piquetes y destrozos en varios establecimientos y en las calles de San Sebastián.

En el transcurso de las manifestaciones que tuvieron lugar por la mañana y por la tarde en el centro de la ciudad participantes de esas manifestaciones pintaron escaparates y fachadas con total impunidad.

Si grave es este hecho aún más grave es que casi un mes después esas pintadas sigan sin limpiarse.

Por todo ello, el abajo firmante se formula la siguiente INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son las razones por las que a día de hoy el Ayuntamiento no se ha encargado de limpiar todas pintadas realizadas durante las manifestaciones del día 17M?

2. ¿Piensa hacerlo?

3. En caso afirmativo ¿Cuándo?

4.4. Hala ez bada, zergatik ez du egin?

5. Ba al dago adierazpen horietako edo beste batzuetako kideen jokabide zibikoaren gaineko kontrolik? Zein da?

6. Gobernu Taldearen ustez, jarduketa horiek betetzen al dute Gizabideari, Bide Publikoaren Erabilera eta Garbitasuna eta Hiri Paisaia Babesteari buruzko ordenantza?

7. Zer neurri hartzen ditu Gobernu Taldeak ordenantza betetzeko?

8. Gobernu Taldearen ustez, horrelako manifestazioetan arau-hausterik egiten al da?

9. Erantzuna baiezkoa bada, zer motatakoa?

10. Zigortzen al dira?

11. Zigorrik ezartzen ez bada, zergatik ez da horrelakorik egiten?

Donostia, 2026ko apirilaren 10ean

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea"

4. En caso negativo ¿cuáles son las razones para no hacerlo?

5. ¿Hay algún tipo de control sobre el comportamiento cívico de los integrantes de éstas u otras manifestaciones? ¿Cuál es?

6. ¿Considera el equipo de gobierno que estas actuaciones cumplen con la Ordenanza Municipal sobre el Civismo, el Uso y la limpieza en la vía pública?

7. ¿Qué medidas se adoptan desde el equipo de gobierno para que se cumpla la ordenanza?

8. ¿Considera el equipo de gobierno que se cometen infracciones en este tipo de manifestaciones?

9. En caso afirmativo ¿De que tipo?

10. ¿Son sancionadas?

11. En caso negativo ¿cuáles son las razones por las que no se sanciona?

En San Sebastián, a 10 de abril de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular"

Iñigo Garcia, Martin Ibabe eta Tomas Pascua jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen los Sres. García Villanueva, Ibabe Eceiza y Pascua Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>4.- Interpelazioa, Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, zuhaitzei buruzko Ordenantzarik ez egotearen gainean.</u>**

Lasa Briz jaunak interpelazio hau azaldu du:

"Victor Lasa Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, hirian zuhaitzen ordenantzarik ez egoteari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Aniztasuneko, Inklusioko eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkari Iñigo Garcíari, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAn (OBRA ETA HIRI ZERBITZUAK) azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Duela bi urtez geroztik Donostian indarrean dagoen Hiri Zuhaitzen Plan Zuzentzaileak (HZPZ) zuhaitz-ondarea eta zuhaitz bereziak babesteko eta

**<u>4.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la ausencia de una Ordenanza de arbolado.</u>**

El Sr. Lasa Briz expone la siguiente interpelación:

"Dr Victor Lasa, portavoz del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Concejal Delegado de Diversidad, Inclusión y Medio Ambiente, Sr. Iñigo García, para su tratamiento en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS, relativa a la ausencia de una ordenanza sobre arbolado en la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

El Plan Director de Arbolado (PDA) vigente desde hace ya dos años en San Sebastián incluye una propuesta de ordenanza de protección y fomento

sustatzeko ordenantza-proposamen bat jasotzen du, hiriko zuhaitzen kudeaketa formalki arautzeko.

Gabezia horrek arau-hutsune bat sortzen du, eta horrek eragotzi egiten du Plan Zuzentzailean jasotako irizpide teknikoak eta kontserbazio-irizpideak eraginkortasunez aplikatzea; era berean, erregulazio espezifikorik gabe uzten ditu funtsezko alderdi batzuk, hala nola aldizkako inausketak, zuhaitz-mozketak zein ordezkapenak, mantentze-lanak, zuhaitz berezien babesa, zuhaitzen kudeaketa eta babesa urbanizazio-obretan eta obra publiko eta pribatuko proiektuetan, eta zehapenak, ez-betetzeen kasuan.

Era berean, eragotzi egiten du Plan Zuzentzailearen printzipio eta metodoen garapenean beste atal batzuk ere inplikatzea, eta hori ezinbestekoa da, batez ere hirigintzan, ingurumenean, osasun publikoan edo mugikortasunean. Ordenantzak aukera emango luke, halaber, udal-gobernuko atal guztietan beharrezkoak diren aurrekontu-partidak esleitzeko.

Indarrean ordenantzarik ez egoteak ere zaildu egiten du kontu ematea eta herritarrek hiri-ondare berdeari eragiten dioten erabakietan parte hartzea, eta horrek arbitrariotasunaren pertzepzioa edo gardentasun falta dakar.

2025eko urrian, Hiri Zuhaitzen Plan Zuzentzailea aurkeztu eta urte eta erdira, Elkarrekin Donostiak Kontrol Mozio bat aurkeztu zuen Udalbatzan, eta Udal Gobernuari eskatu zion Hiri Zuhaitzen Udal Ordenantza sustatu, izapidetu eta onar zezala ahalik eta eperik laburrenean. Mozio horretan Hiri Zuhaitzen Plan Zuzentzailearen jarraibideak txertatu zituen; dokumentu txukun bat zen, paper errea dena. Udal Gobernuko alderdiek horren aurka bozkatu zuten, ustez horrelako erabaki bat "azkarregi" ez hartzeko.

2026ko apirilean, ordenantza onartu gabe dago, eta horretarako izapidea ez da hasi ere egin. Izan ere, gobernuak ez du ordenantza horren garapenean inolako interesik agertu. Egoera onartezina da, are gehiago zientzian eta berrikuntzan erreferente izan nahi duen hiri batean. Hiri batean azpiegitura berdea behar bezala kudeatzea berrikuntza eta zientzia berritua ongi ulertzearen seinale da, hain zuzen ere, eta azpiegitura berdearen defentsa, garapena eta sustapena babesten ditu. Hainbat hiri aitzindaritan 15 urte baino gehiago daramate Hiri Zuhaitzen Plan Zuzentzailearen antzeko irizpide-legeak aplikatzen, eta beraz, Donostia oso atzetik doa. Ez dago arrazoirik donostiarrek zain jarraitu behar izateko.

Hori dela-eta, honako hau aurkezten dugu:

del patrimonio arbóreo y árboles singulares, con el objetivo de regular formalmente la gestión del arbolado urbano.

Esta ausencia genera un vacío normativo que impide la aplicación efectiva de los criterios técnicos y de conservación recogidos en el Plan Director, y deja sin regulación específica aspectos clave como las podas periódicas, talas, sustituciones, mantenimiento, protección de árboles singulares, gestión y protección en obras de urbanización y proyectos de obra pública y privada, y sanciones en caso de incumplimientos.

Asimismo, imposibilita que otros departamentos se impliquen también en el desarrollo de los principios y métodos del Plan Director, cosa imprescindible especialmente en áreas como Urbanismo, Medio Ambiente, Salud Pública, o Movilidad. La ordenanza posibilitaría también la adjudicación de las partidas presupuestarias necesarias en todas las áreas de gobierno municipal.

La inexistencia de una ordenanza vigente también dificulta la rendición de cuentas y la participación ciudadana en decisiones sensibles para el patrimonio verde urbano, generando percepciones de arbitrariedad o falta de transparencia.

En Octubre de 2025, año y medio después de la presentación del PDA, Elkarrekin Donostia presentó una Moción de Control en el pleno, solicitando al gobierno municipal impulsar, tramitar y aprobar la Ordenanza Municipal de Arbolado Urbano en el plazo más breve posible, incorporando en la misma las directrices del PDA, un buen documento que, de momento, queda en papel mojado. Los partidos representados en el gobierno municipal votaron en contra de la misma, sin más justificación que evitar una supuesta “precipitación”

A Abril de 2026, la Ordenanza no ha sido aprobada ni su trámite ha sido iniciado. De hecho, el gobierno no ha mostrado el más mínimo interés en su desarrollo. La situación es inadmisible, más aún en una ciudad que aspira a ser referente en ciencia e innovación. La correcta gestión de la infraestructura verde en una ciudad es precisamente señal de innovación, de comprensión de la ciencia renovada que apoya su defensa, desarrollo y promoción. Donostia ya va muy por detrás de ciudades pioneras que aplican por ley directrices similares al PDA desde hace más de 15 años. No hay razón para que la ciudadanía donostiarra siga esperando.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

INTERPELAZIOA

1. Udal Gobernua zergatik ez da hasi oraindik Hiri Zuhaitzen Ordenantza izapidetzen, Hiri Zuhaitzen Plan Zuzentzaileak berak hala eskatzen duen arren?

   a. Zer eragozpen politiko, tekniko, legal eta/edo natural daude?

2. Hiriko azpiegitura berdeari dagokionez, zein misio eta ikuspegi ditu Udal honek?

3. Nola gauzatu nahi ditu horiek, esparru hori arautzen duen ordenantzarik gabe?

4. Zergatik uzten du gobernuak erregulazio nahikorik gabe azpiegitura berdea, balio ekonomiko handiko arlo bat dela kontuan hartuta?

5. Zenbat langilek osatzen dute hiriko azpiegitura berdeaz arduratzen den lantaldea?

   a. Ebaluatu al da lantalde hori nahikoa den Hiri Zuhaitzen Plan Zuzentzailearen jarraibideak betetzeko?

6. Azken bi legegintzaldietan, zer bilakaera izan du lantaldeak pertsona kopuruari dagokionez?

   a. Bilakaera hori nahikotzat jotzen al da Hiri Zuhaitzen Plan Zuzentzailearen eginkizunak eta helburuak betetzeko?

   b. Bilakaera hori bat etorri al da Udaleko gainerako atalen hazkundearekin?

   c. Horrelakorik egin ez bada, zergatik?

7. Udal Gobernuak ebaluatu al du Hiri Zuhaitzen Plan Zuzentzailea ez betetzearen eragin sozioekonomikoa?

8. Udal Gobernuak ebaluatu al du horrek Klima 2050 Planean duen eragina?

Donostia, 2026ko apirilaren 10a

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea”

Iñigo García eta Victor Lasa jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo el gobierno municipal aún no ha iniciado el trámite de la Ordenanza de Arbolado, pese a que su propio Plan Director de Arbolado lo requiere?

   a. ¿Cuáles son los impedimentos políticos, técnicos, legales y/o naturales?

2. ¿Cuáles son la misión y visión de este ayuntamiento en cuanto a la infraestructura verde de la ciudad?

3. ¿Cómo aspira a su materialización sin una ordenanza que regule este ámbito?

4. ¿Por qué deja el gobierno sin una regulación suficiente un área de tan elevado valor económico como la infraestructura verde?

5. ¿Cuántos trabajadores/trabajadoras integran el equipo a cargo de la infraestructura verde de la ciudad?

   a. ¿Se ha evaluado si son suficientes para cumplir con las directrices del PDA?

6. ¿Qué evolución ha experimentado el equipo en cuanto al número de personas durante los últimos 11 años?

   a. ¿Esta evolución se considera suficiente para cumplir con los cometidos y objetivos del PDA?

   b. ¿Esta evolución ha sido consistente con el crecimiento del resto de departamentos del ayuntamiento?

   c. En caso contrario, ¿cuál es el motivo que lleva a tal situación?

7. ¿Ha evaluado el gobierno el impacto socioeconómico del incumplimiento del PDA?

8. ¿Ha evaluado el gobierno el impacto en el Plan Klima 2050?

Donostia, a 10 de abril de 2026

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”

Intervienen los Sres. García Villanueva y Lasa Briz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**5.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Egian komisaria misto bat eraikitzeari buruzkoa.**

Tomas Pascua jaunak interpelazio hau azaldu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Egiako polizia-etxeari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

EAJren eta PSOEren hauteskunde-promesetako bat, gero legegintzaldi honetarako gobernu-akordioan jaso zena, EGIAn polizia-etxe misto bat eraikitzea izan zen.

Alderdi Popularrak galdera bat aurkeztu zuen idatziz, proiektuaren aurrekontua, Eusko Jaurlaritzak aurrekontu horretan jarriko zuen ehunekoa, proiektuaren egungo egoera eta funtzionamendua zein ziren jakiteko.

Gobernu Taldeak oso erantzun lausoak eman zituen, eta horiek entzunda, iruditzen zaigu EAJk eta PSOEk urratutako promesen zerrenda amaigabean sartuko dela Egiako polizia-etxe mistoaren proiektua.

Horregatik guztiagatik, hau da behean sinatzen duenak egiten duen

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da hasi oraindik Egiako polizia-etxea eraikitzen?

Donostia, 2026ko apirilaren 10a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea"

Martin Ibabe eta Pascua Martin jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(13:12an Lasa Briz jauna bileratik atera da eta 13:17an bertaratu da berriz)*

**6.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Jolastokietaren gainean.**

Tomas Pascua jaunak interpelazio hau azaldu du:

**5.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la construcción de una Comisaría mixta en Egia.**

El Sr. Pascua Martín expone la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti, en la Comisión Espacio Público, Obras y Servicios, sobre la comisaría de Egia.

JUSTIFICACIÓN

Una de las promesas electorales del PNV y del PSOE, que luego se plasmó en el acuerdo de gobierno para esta legislatura, fue la construcción de una comisaría mixta en EGIA.

El Partido Popular presentó una pregunta por escrito tratando de averiguar el presupuesto del proyecto, el porcentaje de ese presupuesto que iba a aportar el Gobierno Vasco, el estado actual del proyecto y el funcionamiento del mismo.

El Equipo de Gobierno planteó respuestas enormemente vagas que nos llevan a intuir que la comisaría mixta de Egia se va a sumar a la interminable lista de promesas incumplidas del PNV y del PSOE.

Por todo ello, el abajo firmante formula la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que todavía no se ha iniciado la construcción de la comisaría de Egia?

En San Sebastián, a 10 de abril de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular"

Intervienen los Sres. Ibabe Eceiza y Pascua Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 13:12 h el Sr. Lasa Briz se retira de la sesión y se reincorpora, de nuevo, a las 13:17 h)*

**6.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre Jolastokieta.**

El Sr. Pascua Martín expone la siguiente

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Jolastokietari buruzko INTERPELAZIO aurkezten dio Jon Insausti alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Jolastokieta kalearen eta San Ignazio galtzaren arteko zatia oso egoera txarrean dago. Irisgarritasuna, inausketa, galtzada, espaloiak... ez dira aldatu gutxienez azken 40 urtetan. Bizilagunek denbora gehiegi daramate Zardoya Otis-eko okupen arazoari aurre egiten, eta horrek larriagotu egiten du duela urte batzuetatik hona bizi duten prekarietate-egoera.

Horregatik guztiagatik, hau da behean sinatzen duenak egiten duen

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da hobetu Jolastokieta kalearen eta San Ignazio galtzadaren inguruko urbanizazioa?

2. Gobernu Taldeak zergatik ez du hasi oraindik Zardoya Otis enpresaren industria-nabeak husteko eta eraisteko administrazio-prozesua?

Donostia, 2026ko apirilaren 10a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Iñigo Garcia jaunak, Nekane Arzallus andreak eta Tomas Pascua jaunak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(13:19an Martin Ibabe jauna bileratik joan da)*

**7.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Manteoko mantentze-lanei buruzkoa.**

Tomas Pascua jaunak interpelazio hau azaldu du:

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Manteori buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta

interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti, en la Comisión Espacio Público, Obras y Servicios, sobre Jolastokieta.

JUSTIFICACIÓN

La zona comprendida por la Calle Jolastokieta y la Calzada de San Ignacio está en un muy mal estado de mantenimiento. La accesibilidad, poda, calzada, aceras… no se han modificado desde hace por lo menos 40 años. Los vecinos enfrentan desde hace ya demasiado tiempo también el problema con los okupas de Zardoya Otis que agrava la situación de precariedad en la que ya viven desde hace años.

Por todo ello, el abajo firmante formula la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿ Cuáles son los motivos por los que no se ha mejorado la urbanización de la zona de la Calle de Jolastokieta y Calzada de San Ignacio?

2. ¿Cuáles son los motivos por los que todavía el Equipo de Gobierno no ha iniciado el proceso administrativo para el desalojo y derribo de las naves industriales de Zardoya Otis?

En San Sebastián, a 10 de abril de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen el Sr. García Villanueva, la Sra. Arzallus Iturriza y el Sr. Pascua Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 13:19 h el Sr. Ibabe Eceiza abandona la sesión)*

**7.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el mantenimiento de Manteo.**

El Sr. Pascua Martín expone la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti, en la Comisión Espacio Público, Obras y Servicios,

Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

MANTEOko bizilagunak oraindik ere kexu dira, auzoaren mantentze-egoera txarragatik.

Horregatik guztiagatik, hau da behean sinatzen duenak egiten duen

INTERPELAZIOA

1. Gobernu Taldeak zergatik ez ditu auzo horretako pilotalekuaren inguruko lauza txikiak konpondu oraindik?

Donostia, 2026ko apirilaren 10a.

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea"

sobre Manteo.

JUSTIFICACIÓN

Los vecinos de MANTEO siguen quejándose del pésimo estado de mantenimiento del barrio.

Por todo ello, el abajo firmante formula la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no ha reparado todavía las losetas del entorno del frontón del barrio?

En San Sebastián, a 10 de abril de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular"

Iñigo Garcia eta Tomas Pascua jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

